ERTAINA

ATHARRATZE-SORHOLÜZE

Erretzü

Distantzia	Desnibela	Iraupena	Tipologia	Zedarriak
10 km	**500 m**	**4h00**	**Itzulia**	**PR seinale horiak**

Atharratzeko plazara joan. Farmaziatik hurbil, erdiko karrikara joan eta kirol gelaraino xuxen segitu pilota plazaren saihetsetik pasatuz. Autoa, bide bazterrean den aparkalekuan utzi.

GPS datuak: **UTM : 674324 - 4775778 Lat/Long : 43.11468/0.85732**

Ühaitza ibarreko ekialdean, Maule eta Atharratzeri lerrokaturik, mendixka desberdinak Mendebaldean den Arbailako mendigunea, Hegoaldean Auñamendi kaskoarekin Pirinioetako mendilerro harrigarria parean ditu. Erretzüko kaskoak, lerrokatze horren muturra markatzen du. Toki horrek, Biarnoko eta Basabürü mendien gainean panorama ederra eskaintzen dio. Ibilbidea oso desberdina da. Lehenik oihanpean, erreka polit baten saihetsean aitzinatzen gara, ondotik haritz kunkusdun iralekuan segitzen dugularik. Osatzen duten iratzeek bezala, kaskoak urtaroen arabera kolorez aldatzen du, udazkenean gorri biziz estaltzeko.

1. ZATIA > Kirol gelatik abiatzea

UTM : 674324 4775778

Itzalean eta goxo den bide txiki hori segitu. Honek Erreka segitzen du. Ezkerrean lehen bide bat utzi (itzultzeko ibilbidea izanen dena) eta xuxen jarraiki. Zubi baten ondoan, mundrunatua den bidea utzi, erreka bazterrean xuxen den lurrezko bidera joateko. Beste erreka bat ibitik iragan agerian ateratzeko. Gure ezkerrean ibilaldiaren helburua ikus dezakegu: Erretzüko tontorra. Erreka nagusia, lizar eta hurrondoen azpian, beti gure eskuinean dugu. Laster, bidexka eskuinera doa erreka baten alde gainetik pasatzeko eta bi bihurgunez bide mundrunatura iristeko.

2. ZATIA > Paillet etxaldea

UTM : 677205 - 4775425

Hesia hetsi. 100m urrunago, ezkerrera joan eta goiti joan. Montecorat etxalde ondotik pasatu eta 300m haratago, Urrutigoiti etxaldea gabe, eskuineko bidexkaren hartzeko bidea utzi. Gorosti azpian eta mendeetako alimaleko gaztainondo ondoan, bidexka honetan segitu. Bidexka laster agerian izanen da eta Erretzüko tontorra agertuko zaigu. Iralekuko mendi mazelako bidexkan xuxen segitu. Auñamendiko mendigune eta Biarnoko mendien gainean bista harrigarria da. Igotze txiki baten ondotik, ordoki batera iritsi.

3. ZATIA > Hurgaraiko lepoa

UTM : 677739 - 4776735

Ezkerrera joan eta, muino leun baten ondotik, kaskoraino doan igotzea hasi. Zuzenean goiti joan, iratzeen artean ontsa agertzen den mendi bizkarreko bidexka segitu. aldapatsua da! Lehen tontor batean cairn lodi bat pasa ezazu (696m-tan). 400m-tan den kasko nagusira joan.

4. ZATIA > Erretzüko kaskoa

UTM : 676617 - 4776754

Ezkerrerantz bidexka maldatsu eta harritsu batean jaitsi (xuxen Züztarriko leporantz ez joan). Kasu eman. Ordoki batean, haritz handia eta gero eskuin hartu. Erreka bazterrean bide mundrunatua arte xuxen segitu. Eta igotzerakoan segitu duzuen bidea aparkalekura arte hartu.

INTERES GUNEA

❖ **Artzain bizi modu bat:**
Erretzüko tontorra iratzez betetako larrez eta haritz kunkus batzuez estalia da. Ingurune horiek, atsegintasun eta ibilbide askeen praktika zaharren lekuko dira. Xiberoan oraindik abereentzako bazka eta inaurkinen ukaiteko praktika horiek hor dira. Tokia hartuz babesten diren haritz kandudunak berogailu egurraren ukaiteko 2 edo 3m-tan moztuak dira. Ezkurrak xerrien bazkarako erabiliak dira. Laborariak, herriko lurrak erabiltzen ditu xuritzeko. Horrek erran nahi du ganaduentzat erabilia den inaurkinerako erabilgarria den guztia mozten dela: otea eta iratzea bereziki. Urte guztiz, negu bukaeran, larreak artzain suen bidez zainduak dira (labaki). Horri esker, landare maltzurrak, sasiak bezala desagerrarazten dira, eta belar eta iratzearen berriz pusatzea sustatua da.

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon
- Ibilbide zorabiagarria: nahitaezkoa da mendiko zapatak janztea

© Txomin Etchemendy

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK
Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.
Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino gutiagoko ibilaldia.
Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino gutiagoko ibilaldia.
Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino gutiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:
Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino gutiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino gutiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoa, 800 m baino gutiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA
Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA
Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.
Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatua da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK
Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoen, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK
Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun.
Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziazko formatua: WGS 84 - UTM 30T

ZEDARRIZTATZE ITUNA
Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorriei jarraitu beharko zaizkie. ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.



Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiozu (zenbait lekutan telefono sarerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespeta ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespeta itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatuak diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespeta itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK
- Méteo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18

ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ
Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu.
Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera:
sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK
Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:
- ATHARRATZE
Arhanpia karrika
+33(0)5 59 28 51 28
- MAULE
Jean-Baptiste Heugas karrika
+33(0)5 59 28 02 37

PROFESIONALAK
Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko,
harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.